

## HKEE-REN PRENTSA OHARRA, SESTAOKO UDALAREN 2016-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den uztailaren 19an aho batez onartu zuen Sestaoko Udalaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

2016ko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako doikuntzak azaleratu diren; horiek ez dute eraginik Udalaren Diruzaintza Geldikinean eta ezin ondoriorik eskuratu izan dugu Ibilgetu ez finantzarioari dagokionez.

Udalak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Honezaz guztiaz gain, Udalaren Kontu Hartzaitzak jaulkitako txostenari jarraikiz, 2016an bete dira aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak eta gastuaren araua.

Udalak zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz hainbat ez-betetze azaleratu diren Langileen atalean (plantillaren egiturazko beharrei aurre egiteko aldi baterako kontratazioak) eta Administrazioako Kontratazioaren atalean (5 kontratu dagokion prozedura baliatu gabe gauzatu dira).